



Esp. kodea: 2018RBAR0026
Eskatzailea: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2018ko 1. hiruhilabetean TGBk onartutako kredituak aldatzeko espedienteen berri ematea
Hasiera eguna: 2018/06/22

OGASUN, DIRUZAINNTZA ETA ONDARE BATZORDEAREN DIKTAMENA 2018-06-19

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO 1. HIRUHILEKOAN ONARTU DITUEN 2018KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.

2018ko Aurrekontua Betetzeko arauen 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketan espedientei buruzko informazioa Udalbatzarrari hiruhilero bidali behar zaio. Behar hori betetzeko helburuz, Ogasun Batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2018ko 1. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udalbatzarrari:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-1-25ekoa, onartzen duena zenbait kontusail berri sortzea, horien artean, “1.0910.625.337.21.01 –Txiki txoko sortzea”, 15.000€ko dotazioaz; “1.0510.622.171.10.01 – Bizikletak garbitzeko gunea sortzea”, 6.000€koaz; “1.0501.620.134.01.10-Erguin igogailua – proiektua idaztea”, 30.000€koaz, eta “1.1200.622.342.30.01 –Iturripeko instalazioak berritzea”, 65.000€koaz, eta zenbait kontusailen dotazio handitzea, besteak beste, ; “1.0500.642.151.01.01 –Etxaluzeeje ekoboulebar proiektua”, 40.000€-an (dotazioa 80.000€tan gelditzen da) eta “1.0500.601.171.01.01 – Itxaropena plaza parkea” kontusaila handitzea, 94.000€-an (dotazioa 234.000€tan gelditzen da), gastu gehikuntza guztien baturak 250.000€ suposatu du eta “1.0100.500.929.00.00 – Prozesu partehartzaileetarako Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez finantzatu da.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-01-25ekoa, onartzen duena 101.000€-an handitzea “1.0500.601.171.01.01 - Itxaropena plaza parkea” kontu sailaren diru-kopurua (dotazioa 335.000€tan gelditzen da), kreditu transferentziaren bidez finantzatua, ondorengo kontusailetatik:

- “1.0802.601.171.00.00 – Haur parkeak” kontu-sailetik, 30.000€ (dotazioa 95.000€tan gelditzen da)
- “1.0500.622.151.00.00 – Udal ondarerako erosketak” kontu-sailetik, 15.000€ (dotazioa 45.000€tan gelditzen da)
- “1.0500.622.150.00.00 – Udal ondarerako inbertsioak” kontu-sailetik, 15.000€ (dotazioa 45.000€tan gelditzen da)
- “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik, 41.000€ (dotazioa 34.000€tan gelditzen da)

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-01-25ekoa, onartzen duena 1.000€-an handitzea “1.0610.481.231.00.99 – Gureak – Pauso berriak programarako laguntza” kontu sailaren diru-kopurua (dotazioa 8.000€tan gelditzen da), “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez (dotazioa 33.000€tan gelditzen da).

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-02-08koa, onartzen duena “1.0610.227.241.10.07 – Gaztelan proiekturako aportazioa”, 572.898,28€ zenbatekoan handitzea (dotazioa 617.898,28€tan gelditzen da); gastu hori finantzatuko da diru-sarreretako “2.0410.400.241.10.01 – Gaztelan programarako Estatuaren laguntza” kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.



Esp. kodea: 2018RBAR0026
Eskatzailea: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2018ko 1. hiruhilabetean TGBk onartutako kredituak aldatzeko espedienteen berri ematea
Hasiera eguna: 2018/06/22

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-02-15koa, onartzen duena 8.600€-an handitzea “1.0400.227.230.00.04 – Arrasateri buruzko giza-diagnostikoa” kontu sailaren diru-kopurua (dotazioa 13.600€tan gelditzen da), “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez (dotazioa 24.400€tan gelditzen da).

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-02-22koa, 2017ko produktubitate planaren 5.ordainketa onartzen duena, eta, horren ondorioz, inplizituki, lehenengo kapituluko zenbait kontu sail 83.916,99€-ko zenbatekoan handitzen dira, gastu hori diru-sarreretakoa “2.0600.860.000.00.01 – 2015ko aurrekontuz kanpoko Fondoa” kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean, finantzatu delarik.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-03-01ekoa, onartzen duena 18.400€-an handitzea “1.0501.620.134.01.10 – Erguin igogailua –proiektua idaztea” kontu sailaren diru-kopurua (dotazioa 48.400 €tan gelditzen da), “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-03-08koa, onartzen duena “1.0512.210.172.10.01 – Akei mantentzeko zerb.subkontrat.”, 3.000€ zenbatekoan handitzea (dotazioa 22.500€tan gelditzen da); gastu hori finantzatuko da diru-sarreretakoa “2.0512.421.000.00.01 – Mankomunitatea, Akeiko lurren kontrolerako ekarpena” kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-03-22koa, onartzen duena 15.000€-an handitzea “1.1200.622.342.30.01 – Iturripe kirol instalazioak berritzea” kontu sailaren diru-kopurua (dotazioa 80.000 €tan gelditzen da), “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik, 5.000€, eta “1.1200.642.340.00.01 – Kiroldegi berriko proiektua” kontu-sailetik, 10.000€ (dotazioa 15.000€tan gelditzen da), bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2018-03-22koa, 2017ko aurrekontuaren likidazioa eta, aldi berean, 2018 urteko aurrekontura kreditu txertatuak bidaltzea onartzen duena kontusail desberdinetan, guztira 6.795.144,52 euroko gehikuntza suposatzen duelarik.

Arrasate, 2018ko ekainaren 22a

BATZORDEBURUA

Ander Garay Zabaleta